



## DANTZAN BILAKA 2019ko BATZORDEAn parte izateko ERRELEBO DEIALDIA

### Nori zuzendua

Euskadiko dantza alorreko eta sorkuntza artistikoko profesionalei. Hautagaitzak gauzatzeko ondorengo bidali behar da: Curriculum eta motibazio gutuna. Beharrezkoa izatekotan elkarrizketa pertsonalak egingo dira.

### Deialdia

Deialdi honek Dantzan Bilaka koordinazio batzordea txandakatzeko helburua du datorren urtea 2019ko ediziorako. (ikusi beherago eskaera)

### Aurrekariak

2016. urteko ediziotik, Dantzan Bilaka programa hiru pertsonen lan-talde batek koordinatzen du, talde horrek programa aurrera ateratzeko behar den guztiaz arduratzen da. Batzorde laguntzaileak eta koordinatzaileak, horrela deitzen baita, programaren egituraren diseinuaz eta koordinaketa zereginenez gain, garatzen diren prozesu sortzaileei ere jarraipena egiten die. Batzordeak, 3 urtean behineko txandakatze sistema bat jarraitzen du, horrela, taldean pertsona berriak sartzeko modua mailakatua da eta aurretiko esperientzia duen taldea zihurtatzen da.

2018. urteko edizioan batzordearen kideak hauek izan dira: Blanca Arrieta, Olatz de Andrés eta Asier Zabaleta.

Duela bi ediziotik hona, jardunaldiak lurralde bakarrean kontzentratu dira, urtetik urtera EAEko hiriburuetatik txandakatzeko asmoz. DB 2017. urtean, Bilboko Azkuna Zentroan burutu zen, DB 2018. urtean Gasteizeko Artiumen ospatu zen. Datorren edizioa 2019. urtean Donostian izango da.

### Lanerako baloratuko diren ezaugarri nagusiak:

- Presentzialki eta birtualki edizioaren garapenari buruz elkarrizketarako disponibilitatea, batzordearekin, ADDEekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.
- Eratutako egituraren hobekuntza proposamenak egiteko gaitasuna.
- Analisi, hausnarketa eta programaren ideia nagusiak egituratzeko gaitasuna.
- Programa aurkezteko eta komunikatzeko gaitasuna.
- Taldeak koordinatzeko gaitasuna eta komunikazioan erraztasuna.
- Egutegi pertsonalean adostasuna eta ordutegi malgutasuna.
- Kudeaketa eta ekoizpen zereginetan esperientzia.

### Dantzan Bilaka batzordean bete beharreko ardura eta eginkizunak

DB (Dantzan Bilaka)ren eginkizunen garapenak eta betearazpenak batzordearen hiru kideen artean banatuko dira, beti ere ADDEko bulegoaren laguntzarekin eta EJrekin eta jardunaldiak jasoko duen espazioarekin elkarrizketan.

Dantzan Bilaka programaren diseinua, Koordinazioa eta exekuzioa lau lan esparru biltzen ditu:

### 1. AKONPAINAMENDU ARTISTIKOA

Sortzaileei euren prozesuetan laguntza artistikoa eskaintzea, proiektu koreografikoen prozesu artistikoak jarraitzeko gaitasuna eskatzen du, baita batzordearen beste kideekin, ADDEko batzordearekin eta Eusko Jaurlaritzako kultura sailarekin ere bitartekaritza gaitasuna izatea.

Laguntza artistikoak dituen ezaugarri zehatzak:

- Material eta ideia artistikoen garapenean akonpainamendua.
- Jardunaldietan proiektua nola aurkeztu hausnarketaren akonpainamendua.
- Agerkarian proiektua nola irudikatu hausnarketaren akonpainamendua.
- Entsaioetara bertaratzeak/ Skype bidez elkarrizketak/ telefonoz edo emailaz Komunikazioak.
- Proiektu artistikoen espezifikotasunak batzordekideei komunikatu, teknika koordinatzaileari eta aurkezpena egingo den espazioaren arduradunari.

### 2. ESPAZIOAK ETA TEKNIKA

Aurkezpen espazioen, teknikaren eta ikus-entzunezko erregistro materialaren koordinaketa. Eginkizun horiek espazioaren arduradunarekin, teknikaren arduradunarekin eta ikus-entzunezko dokumentazioaren arduradunarekin koordinatuko dira.

### 3. AGERKARIA ETA KOMUNIKAZIOA

DBko agerkariaren koordinazioak, zeregin honen fase ezberdinetako eduki eta parte hartzen duten pertsonak artatzeko gaitasuna eskatzen du (sortzaileak, diseinadore grafikoa, itzultzailea...)

Eginkizun nagusiak hauek dira:

- Agerkaria, batzordearekin eta diseinua eramaten duen pertsonarekin koordinatu hartu-eman zuzenean.
- Dantzan Bilaka 2019ko partaideekin topaketa bat antolatu agerkariaren inguruan.
- Agerkarirako behar diren materialen bidalketaren jarraipena egin.
- Agerkariak eta kartelak banatzeko zerrenda ikuskatu (batzordearekin, ADDEekin eta Ejeekin batera)
- Programaren prensa dosierra eta presntsa oharra idatzi.
- Agerkariaren sarrerako testua idatzi (batzordearekin elkarrizketan)
- ADDEekin komunikazioari buruzkoak koordinatu: Komunikabideak, prensa...
- Programaren prentsurrekoa prestatu eta burutu.
- Aurkezpenen ikus-entzunezko dokumentazioa batzordearekin batera koordinatu.

### 4. EKINTZA PARALELOAK

Ekintza paraleloen diseinua, ekoizpena eta koordinaketa. Eginkizun hauek DB batzordeko beste kideekin batera egingo dira.

### 5. ITXIERA LANAK / AZKEN EBALUAKETA

Urteko ekintzei itxiera emateko behar diren eginkizunak. Honakoak izango dira:

- Programaren koordinaketaren barne ebaluaketa.
- Lanen ikus-entzunezko erregistroak kudeatu.
- Partaideekin ebaluaketa bilera edo galdeketa.
- Ebaluaketa bilera: DB batzordea, ADDE eta EJ.
- Batzorde berriarentzako deialdia idatzi.
- Batzordeko kide berrien hautaketan parte hartu.



## Eskaera

Konpromezua bi urtekoa da, BD 2019 eta BD 2020.

Edizio bakoitzeko lan-denboraldia, pertsona hautatzen denetik (abendu bukaera – urtarrila) jardunaldien itxiera arte izango da (azaroa). Gehienbat, lan-karga handienak urteko 3. eta 4. hiruhilekoetan batzen dira.

## Bitarteko tenporalak

Behintzat hilean behin bilera presentzial bat (bi izatea gomendagarria). Bilera horiek batzordeko kideekin edo Eusko Jaurlaritzakoekin edo ADDEko batzordearekin izan daitezke. Batzordeko barne bilerak izango dira, ADDEko batzordearekin jarraipen bilerak eta Eusko Jaurlaritzako taldearekin eguneraketa bilerak.

Bilera birtualak behar izatekotan (Skype). Egunerokotasunean posta elektronikoz harremana, mezuak erantzuten.

## Soldata

5.000 euro + BEZ

## Entregatu beharreko eskaera

Honako helbidera bidali behar da [info@addedantza.org](mailto:info@addedantza.org)

- CV (ibilbide artistikoa eta proiektuen kudeaketan eta koordinazioan izandako praktika aipatuz)
- Motibazio gutuna.
- 2019 egutegiaren disponibilitatea.

## Epeak

- Eskaerak aurkezteko azaroaren 13tik abenduaren 13ra.
- Pertsonaren hautaketa abenduaren 14tik 19ra.
- Aukeraketaren Komunikazioa abenduaren 20tik aurrera.